HITZ BITAN

EZBEHARRAK. Beste hiru lagun larri zauritu dira

Bi gazte hil dira Amurrion, auto istripuz, eta motorista bat Busturian

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Hiru gazte hil ziren atzo goizean Amurrion (Araba) eta Busturian (Bizkaia) izandako bi istripu larritan. Ezbehar horietan eta Nafarroako Legardan gertatutako beste batean beste hiru lagunek zauri larriak egin zituzten.

Lehen ezbeharra goizaldeko 05:30ean gertatu zen, A-625 errepidean, Amurrio inguruan. Gazte batzuen Opel Tigra bidetik irten zen, Ertzaintzak oraindik argitu ez dituen arrazoiak direla kausa. D.G.P. 22 urteko laudiotarra eta I.A.I. 24 urteko amurriotarra istripua gertatu eta berehala hil ziren. Autoan zihoan beste gaztea –23 urteko G.L.Z., Laudiokoa– Galdakaoko erietxera eraman zuten, zauri larriak zituelako.

Goizeko 09:50ean gertatu zen beste istripu larria, BI-2335 errepidean, Busturian. Motorista batek bere ibilgailuaren kontrola galdu egin zuen eta motorretik erori zen, berarekin zihoan lagunarekin batera. Ondorioz, J.C.B. Bilboko gaztea hil egin zen, eta larri zauritu, berriz, A.E.L.A izenekoa. Galdakaoko ospitalera eraman dute.

Legardan, berriz, Peugeot 306 batek eta Volkswagen Polo batek talka egin zuten. Kolpearen ondorioz, Peugeota gidatzen zuen Daniel O.G. 27 urtekoak zauri larriak egin zituen. Beste autoaren gidariak, R.R.B. 50 urtekoak, ez zuen inolako kalterik jasan.

Oporretako zirkulazio operazio berezia, bihartik aurrera

Eusko Jaurlaritzako Zirkulazio Zuzendaritzak opor hasierako operazio berezia martxan jarriko du bihar. 14:00etatik aurrera ehunka ertzain errepideetan arituko dira zirkulazioa arintzen eta gerta daitezkeen istripuetan laguntzeko asmoz. Zirkulazio handiko errepideak dituzten hiri eta herrietan udaltzainen laguntza izango dute. Ertzaintzak helikopteroak erabiliko ditu edozein ezbehar edo auto ilaren berri laster izateko eta Osakidetzako larrialdi zerbitzuei, Gurutze Gorriari edo DYAri ohartzeko.

Operazioaren lehen fasea larunbat gauerdian bukatuko da. Bigarren aldia, berriz, uztailaren 31n hasi eta abuztuaren 1ean amaituko da.

Urtero legez, Zirkulazio Zuzendaritzak lasai eta arretaz gidatzeko aholkatu die gidariei. Halaber, atseden hartzeko eta alkohol tantarik ere ez edateko eskatu die.



PABLO S.QUIZA
Auto ilarak, Biriatuko mugan, Aste Santuko oporretako irteeran.

INGURUMENA

463 amuarrain eta 250 karramarro hilik atera dituzte Larraun ibaitik

Nafarroako Gobernuko Ingurumen Saileko langileek Larraun ibaitik 463 amuarrain eta 250 karramarro jaso dituzte hilik azken egunotan. Uztailaren 18an hil ziren, Mugiro aldean, ibaiaren ur eskasiak oxigenorik gabe utzi zituelako.

Garoñari buruzko informazioa jasoko dute ikasleek

Garoña inguruan bizi diren ikasle arabarrek informazioa jasoko dute zentral nuklearrean ezbehar bat gertatuz gero egin beharrekoari buruz. Udazkenetik aurrera, autobus batek informazioa zabalduko du Arabako mendebaldeko herrietan.

MENDIA

Oraindik ez dute aurkitu Panticosan desagertu zen mendizale donostiarra

Duela hamar egun Panticosa inguruko mendietan desagertutako Gorka Suarez mendizale donostiarrararen aztarnarik ez dute aurkitu oraindik.

OPORRAK

Abuztuan oporretan joateko 85.000 euskal herritarrek trena erabiltzea espero du Renfek

Renfek tren zerbitzu bereziak jarri ditu datozen egunotan abuztuko oporlekuetara abiatzen direnentzako. Trenbide konpainiak iragarri du Hego Euskal Herrian 85.000 lagunek erabiliko dituztela bere zerbitzuak ostiraletik abuztuaren 1era arte. Urtero legez, bidaiari gehien garraiatuko duten trenak Mediterraneoko hirietara abiatzen direnak izango dira, hala nola Bilbo-Malaga, Irun-Bartzelona, Bilbo-Irun-Alacant edo Iruñea-Valentzia-Alacant. Halaber, jende ugarik Madrilera doazen trenak hartzea espero da, Espainiako hiriburuak lotura ugari dituelako beste oporleku batzuekin.

INFORMATIKA

Euskal Informatikarien Bederatzigarren Festa hasiko da bihar Gasteizko Buesa Arena kiroldegian

Informatikan interesaturik daudenek hitzordua dute bihartik igandera bitartean Gasteizko Buesa Arena pabiloian. Euskal informatikarien 9. festak konputagailuen munduko azken berritasunak erakutsiko ditu, eta aukera emango die enpresa informatikoei beren azken produktuak aurkezteko. Antolatzaileak, Euskaltel Fundazioak, Buesa Arenan bi mila lagunetik gora azaltzea espero du. Iaz Bilboko Erakustazokan 1.600 lagun bildu ziren.

ETXEBIZITZA

1.400tik gora eraikin erortzear daude EAEn

Eustatek zabaldutako azken datuen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan dauden 172.000 eraikinetatik 1.400 baino gehiago daude erortzear. 1.666.871 eraikin egoera onean daude eta gainontzeko 2.772 uneotan eraikitzen ari dira. Araba da eraikin hondatu gehien duena (658), Lautada eta Errioxa eskualdeetan batik bat. Bizkaian 358 daude erortzear, eta Gipuzkoan, berriz, 395. Hiri nagusien artean, Santurtzi (82) eta Gasteiz (81) daude okerren, eta Donostia (25) eta Bilbo (33) ongien. Balmasedan, Bakion, Zierbenan, Orozkon eta Urduñan eraikin guztiak egoera onean daude.

LAPURRETAK

Ertzaintzak bi gazte atxilotu ditu Sestaon, hipermerkatu batean produktutan 200.000 pezeta osteagatik

Ertzaintzak A.C.M.G. 19 urteko bilbotarra eta 15 urteko adin txikiko bat atxilotu zituen asteartean, Sestaoko hipermerkatu batean lapurreta egiten saiatzeagatik. Saltokiko segurtasuneko kideak ohartu zirenez, bi gazteek leporaino betetako gurditxoarekin alde egin nahi izan zuten, kutxatik pasatu gabe. Gurditxoan 200.000 pezeta balio zuten produktuak zeuden. Bestetik, S.A. 27 urtekoa harrapatu zuten ertzainek atzo goizaldean, bere neska-lagun izandakoari poltsa ostu ziolako.

BERUETEKO KONTZEJUA

BASOKO BIDEETAKO AZPIEGITURAK HOBETZEKO OBRAK EMATEKO LEHIAKETA

Berueteko Kontzejuko Juntak, 2001eko uztailaren 20ko bilkuran hala erabakita, enkantera deitzen du mendia ixteko obrak emateko.

Emateko modua: Lehiaketa publikoa.

Prozedura: Negoziatua, prentsan iragarkiak jarrita.

Zeregina: Basoko bideetako azpiegitura hobetzeko lanak.

Kontrataren aurrekontua: 4.370.562 pta. (BEZa barne).

Behin-behineko bermea: kontrata bidezko aurrekontuaren %2a.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintza administratibo partikularren orrian zehaztutakoa.

Proposamenak aurkezteko: Berueteko Kontzejuan, enkante iragarkia prentsan agertu eta hurrengo 14 eguneko epean.

Proposamenen irekitzea: proposamenak aurkezteko epea bukatu eta handik lau astegunera, 13:00etan.

Interesa dutenek eskura dute baldintza administratiboen orria Berueteko Idazkaritzan.

Beruete, 2001eko uztailaren 23a. Alkatea, Juan Bta. Arrarás.

BERUETEKO KONTZEJUA

KALEAK LAUZATZEKO OBRAK EMATEKO LEHIAKETA

Berueteko Kontzejuko Juntak, 2001eko uztailaren 20ko bilkuran hala erabakita, enkantera deitzen du Berueteko kaleak lauzatzeko obrak emateko.

Emateko modua: Lehiaketa publikoa.

Prozedura: Irekia, lehiaketa bidez.

Zeregina: Kaleak lauzatzea.

Kontrataren aurrekontua: 26.554.598 pta. (BEZa barne)

Behin-behineko bermea: kontrata bidezko aurrekontuaren %2a.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintza administratibo partikularren orrian zehaztutakoa.

Proposamenak aurkezteko: Berueteko Kontzejuan, iragarkia NAOn argitaratu eta hurrengo 26 eguneko epean.

Proposamen ekonomikoen irekitzea: proposamenak aurkezteko epea bukatu eta handik zazpi astegunera, 13:00etan.

Interesa dutenek eskura dute baldintza administratiboen orria Berueteko Idazkaritzan.

Beruete, 2001eko uztailaren 23a. Alkatea, Juan Bta. Arrarás.